

1-BALIO PROPOSAMENA:

Era ekologikoan energia aurrezteko aukera emango duen eguzki plaka eskaintzen dugu.

Etorkizunean ezingo dira gasolinazko kotxeak garraiatu, beraz gure enpresak etorkizunean onartuko den kotxe mota horren barruan, plaka hoberena eskainiko du, hau da, eguzkiko-plaka gaur egun ez du garrantzia handirik hartuko bezeroek ez dakitelako nola funtzionatuko duen, baina denbora pasan ondoren garrantzia berreskuratuko du. Hau esan ondoren, jakinarazi nahi dugu plaka horrek egiten duen funtzioa oso eraginkorra dela, kotxeari energia ematen. Horrela, gure bezeroek hirietatik garraiatzeko alde erantzukizuna izango dute, baita kostuak murrizteko aukera izango dute.

Kotxeetan ipintzeko eguzkiko plaka izango da, bezeroek, elektrizitate-gastuak murriztu dezaten. Hau esanda, erositako kotxea ekonomikoki merkeago aterako zaizkie eta gure munduarekin erlazio estuagoa izango dugu, kutsaduraren aldetik.

Batetik, bezeroek hasieran plakan inbertsioa egin arren, energia aurreztuko dute, beraz; dirua aurreztea lortu ahal izango dute. Bestetik, murrizketarik gabe garraiatzeko premia betetzen diegu.